

**ALBERTO SOLOLUZE ETA JOAQUIN BELTRANEN
DESAGERPENAREN HARIRA,
ALBERTOREN SENIDEON MOZIOA:**

MARKINA-XEMEINGO UDALA

2020 MAR. 09

SARRERA

IRTEERA

KODE

Hilabete igaro da, dagoeneko, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran lanean desagertu zirenetik, eta denbora horretan haien senideok ez dugu bakerik izan, jasaten ari garen sufrikarioak ez baitigu tarterik uzten beste ezertan pentsatzeko.

Esan bezala, Alberto eta Joaquin beren eguneroko lanean ari zirela desagertu ziren. Ez ziren itsasoan desagertu, leku jakinean baizik. Denok dakigu gutxi gorabehera non, denok ezagutzen dugu parajea, eta denok ari gara bultzaka, nor bere aldetik, lehenbailehen atera ditzaten. Geurea baizik ez dugu eskatzen, gorpuak, eta gertatutakoa argitzea.

Bestalde, oso kezkatuta gaude Alberto eta Joaquinen desagertpenaren auzia, denbora pasa ahala, bigarren mailan gelditzen ari delako. Azpimarratu beharrean gaude haien desagertpenak bere horretan dirauela, hau da, lurpean jarraitzen dutela eta gure oinazea gero eta minago, larriago eta jasanezinagoa dela.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu erreskate lanetan aritu izan diren eta oraintxe bertan ari diren guztiei. Badakigu eginahalak egiten ari direla Alberto eta Joaquin aurkitzeko, eta adierazpen honen bidez, bi familien indar guztia helarazi nahi diegu ez etsitzeko eta gorpu bien bila ahaleginak egiten jarraitzeko.

Bukatzeko, gure eskerrona herrietako mobilizazioetan parte hartu duten guztiei. Haien kemen eta babesa, gure euskarri.

Horregatik, Markina-Xemeingo Udaleko Plenoak erabakitzen du:


1. Bere babes osoa eskaintzea Zaldibarko Eitzaga auzoko zabortegian desagertuta dauden Alberto Sololuze gure herritarraren eta Joaquin Beltran Zallako herritarraren inguruko senide eta lagunei. Halaber, eskatzen dugu behar dituzten baliabide guztiak haien eskura jartzeko, eta haien interesei eragiten dien informazio guztia izango dutela bermatzeko.
2. Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea bi langileak aurkitzea lehentasuna izan dadila.
3. Behar den administrazioei eskatzea hondakinen kudeaketaren arloan beharrezkoa den kontrola bermatzea, horrelakorik berriro gerta ez dadin.
4. Eskerrak ematea erreskate lanetan parte hartu duten eta parte hartzen ari diren profesionaleri. Halaber, eskatzen dugu berma daitezela langileon segurtasun neurriak.
5. Udalbatza osatzen duten bi alderdi politikoek (EAJ eta EH BILDU) senideek eta eragileek Markina-Xemeinen antolatuko dituzten ekimenei babesa ematea eta laguntza eskaintzea.

Markina-Xemeinen, 2020ko Martxoaren 9an

Eskatzaileak:

Nerea Sololuze Txurruka NAN: 72249033F

M Lourdes Sololuze Txurruka NAN: 15348188N

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'M. Sololuze', is written over a circular stamp. The signature is fluid and cursive.